

Laurogei urte eta gero bakean dira

1937an erail zuten Hilario Bilbao gudariaren senideen lekukotza.

Antonio eta Maria gurasoek eta Andoni, Irune, Moises, Valentín, Mari Karmen eta Ana Mari seme-alaba txikiek osatutako Larrañaga Bilbao familia 1948an heldu zen Andoainera, Bergarako jaioterria utzi eta gero. Familia horren historian eta memorian, 1936ko gerran hil zen Hilario Bilbao Bagazgoitia osaba gudariak aparteko tokia



Ana Mari Larrañaga urnietarra, Hilario Bilbao osabaren argazkia eskuetan duela.

eduki izan du beti. Frankismo-ko eta hurrengo urteetan ezarritako isiltasuna gainditu ostean, "zer gertatu zen osabarekin?" "non amaitu zuen?", galdezka hasi ziren han-hemen. Era horretan, erantzunak jasotzen joan dira azken urteetan.

Osaba 1937an Gernikan hil zuten tropa frankistek, beste 70 gudari gipuzkoar gehiagorekin batera, Joan zen ekainaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiak Gernikan haien aldeko ekitaldia antolatu zuen. Hilarioren sendia bakean sentitzen da orain.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

Udako ordutegia

Andoainen eta Urnietan, hainbat zerbitzuetan udako ordutegiarekin lanean ari dira.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Kaletxikiko jaiak irudi bidez



Ospakizunetan murgildu da auzunea, eta asteburuan zehar egin diren hainbat ekitalditan parte hartze handia izan da.

[ANDOAIN, 4-5. ORRIALDEAK]

Andoain Esan taldeak beharrezko zituen 1.500 sinadurak lortu ditu

Erabakitze eskubidearen aldeko Andoaingo taldeak eskertza adierazi die herrikideei, hitzordu berriak iragartzearekin batera.

Postontzia

Andoain Esan taldeak 'Herri galdeketa' egiteko behar zituen 1.500 sinadurak biltzea lortu du eta, sinadura eman duen andoaindar guztiei eskerrak eman nahi dizkie lehenik eta behin. Sinatzea garrantzitsua izan baldin bada ere, hau ez da izan helburua, ez da helmuga.



Sinadurak biltzea lehen pauso besterik ez da izan. Pauso horrek 'herri galdeketa' deitzera eramaten gaitu. Eman beharrek pausoak finkatu ditugu.

IRAILAK 23, BATZAR IREKIA

Larunbata goizez, 'Galdeketa' horretan bozkatzera jarriko den galdera adosteko bilera egingo da. Parte hartze zabala lortu

nahi da galdera adostu ahal izateko egingo diren dinamiketan; eztabaida eta hausnarketa eragin dezakeelako. Horrela, eztabaida asko sortzen duen gaiaz pentsatzeko eta hausnartzeko bide emango digu.

AZAROAK 5, HERRI GALDEKETA

Egun osoz, herriko hainbat guneetan jarriko dira hautesontziak eta bertan, andoaindarrok, gure herriaren etorkizunari buruz gure iritzia eman ahal izango dugu, irailaren 23an adostutako galderaren aurrean gure bozka emateko aukeraz baliatu gaitzen eta iritzia emateko aukera ongi erabil dezagun.

Uda zinema kalean

Andoainean zinema eskainiko dute, aire zabalean, datozen hiru asteetan.

- Uztailak 7, ostirala: "Ice Age, el gran cataclismo". 22:00 Goikoplaza.
- Uztailak 13, osteguna: "Zipi eta Zape eta kapitainaren irla" filma, euskaraz. 22:00 Zumea plaza.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Ernaitza liburudenda

PRESTA ZAITEZ HURRENGO IKASTURTERAKO:

- Ikastetxe guztietarako ikas-liburuak %10eko beherapenarekin edo forratuta.
- Eskolarako materiala preziorik hoberenean.

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459
ernaitza@yahoo.com

MEMORIA HISTORIKOA

Hilario Bilbao osaba gudaria Gernikan omendu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako omenaldi baten eskutik, orain arte hobi komun batean ehortzita eta ahaztuak izatera konde-natuak egon diren 82 gudariei -gehienak gipuzkoarrak- izen eta abi-

zenak jarri zitzaizkien. Eta hain zuzen, Hilario Bilbaoren gorpua gudari horien artean dago. Ekitaldian gogo biziz hartu zuten parte Hilario Bilbaoren oinordekoek.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Oinordeetakoa den Ana Mari Larrañaga urnietarrak azaldu dizkigu bere osabaren eta Gernikako ekitaldiaren inguruko xehetasunak.

Noiz eta zergatik hasi zineten osabarengandik galdezka?

Etxean txiki-txikitatik eduki izan dugu bizirik osabaren oroitzapena. Gure izebak (Angeles) anaiaren erretratu eskuan hartu eta etxeko txikiei esaten zigun "koittadua, emaiozue patxo bat". Izan ere, bai bera eta baita gure ama ere (Lorentza) osabaren izena eta izana transmititzen saiatu ziren beti, harro baitzeuden anaiak nahiz eta euskal historian ezkutatuta egon, Euskal Herriaren alde bizia eman zuten milaka pertsonen antzera.

Orain hamabi bat urte memoria historikoa indarrean jartzen hasi zenean, Andoingo Oroitzu elkartearengana jo genuen ea osabaren informaziorik ba ote zuten eskatuz. Era horretan, Bizkaiko frontean hildakoekin 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian entziklopediak argitaratutako zerrenda batean agertzen zela jakiteaz gain, Jaurlaritzari eskaera egin genion. Azken urtetan zenbait agiri jarri dizkigu eskura Jaurlaritzak, osaba 1937ko otsailaren 1ean ospitalean hil zela eta Gernikan lurperatu zutela ziurtatzen dutenak.

Zer sentitu zenuten Gernikan, ekainaren 17ko ekitaldiarekin?

Poz handia! Bakea sentitu dugu barnean, azkenean. Zauri bat sendatu balitzaigu bezala. Orain 10-12 urte hasi genuen prozesuaren amaieratzat hartu dugu Gernikakoa. Bizitzan ixten den ziklo baten gisa. Iluntasunetik argitara atera da osabaren izena, gainerako 80 gudariek batera Euskal Herriko historian merezi zuten protagonismoa eman zaiolako.

Maitasunez egindako ekitaldia izan zen, hunkigarria benetan, eta gure familiaren ikuspegi pertsonaletik, sinbologia



Ana Mari Larrañaga, Hilario Bilbao osabaren erretratu eskuetan duela, astearte goizean.

berezia eduki zuen Bergarako alkatearen presentziak, izan ere horrek adierazi nahi baitu Bergarak gogoan daukala Hilario gure osaba, eta ez hori bakarrik, baita ere seme kuttuntzat daukala.

Zein zen Hilario Bilbao, zuen osaba?

Bilbao Bagazgoitia familian sei senide ziren, bi emakume eta lau gizonezko. Horietako bat Hilario zen, 22 urteko jorنالaria. Gazte apala, diskretua. Politikoki ez zen nabarmentzen, baina euskaltzalea zen batez ere. Nahiz eta etxean aitak ez jakin euskara, Hilariok euskara beste hizkuntzarik ez zuen erabiltzen. Gure amak kontatu ohi zigun nolako algarak egin zituzten behin gaztelaniaz hizketan sumatu zutenean; nonbait,

etxean ez omen zuten uste gaztelaniaz bazekienik! Gerra heldu zenean, boluntario joan zen aurrera, Loyola batailoi abertzalearekin. Frontean gaixotu egin zen, auskalo zein baldintzatan ari zela borrokan, eta 1937ko otsailaren 1ean ospitalean hil egin zen.

Gernikako hilerrian ehortzi zuten, beste 80 gudarirekin....

Bai, EAJk gerran zehar lur zati bat erosi eta bertan lurperatu zituzten hildako gudari asko, bere menpeko batailoiak zirenak. Gero frankistak nagusi jarri zirenean gorpua eta horien izen-abizenen zerrenda desagertaraztea agindu zioten ehorzleari. Honek, hala ere, ez zuen agindua bete, eta beste hobi batera le-

kuz aldatu zituen denak, aurretik haien identifikazioa zehaztu eta gero. Benetan txalotzekoa den jarrera eduki zuen ehorzleak.

Zuen senidearen gorpua non dagoen jakin ahal izan duzue eta egin diozue gorazarre. Baina nahiko salbuespentzat hartu behar da zuen kasua, oraindik milaka familia gertzen baita "non da gurea?" galdezka...

Bai, arrazoi duzu, eta izugarri atsekabetez gaitu. Gu zori onekoak izan gara nolabait, nahiz eta ezin ahaztu mingarriak izan zirela osabaren heriotza eta hartara eraman zituzten zirkunstanziaz. Animoak helarazi nahi dizkiet desagertuen familiarrei, memoriaren aldeko elkartei eta erakunde publikoei. Mesedez, jarrai dezatela lanean, ez dezatela etsi. Erotzat hartuko dituzte batzuetan, baina arrazoiak bere alde daukate. Aurreko belaunaldiak gure arreta eta errespetua merezi dute; duinki lurperatuak eta gogoratuak izatea merezi dute.

Zer esango zenieke zera diotenei, alegia 80 urte igaro direla eta badela garaia gertakari eta biktima haiek ahazteko?

Diruagatik ari garela eta antzekoak entzun izan ditut, baina tira! Horrela pentsatzen dutenei zera eskatuko nieke, adibidez, hartu dezatela minutu bat irakurtzeko egunotan komunikabideetan agertu den 92 urteko Ascension Mendietaren kasua. Bere aita orain 78 urte desagertarazi zuten; urtetan haren bila aritu ostean, oraindik orain topatu ahal izan du hobi komun batean. Lehengo egunean lurperatze duin bat eskaini ahal izan zion aitari, bere bizitzan zeukan ilusiorik desiratuena bete zuen seguruenik. Sentiberatasun pittin bat daukan pertsona bati barruak mugitu beharko lizkioke amona horrek urtetan aurrera eraman izan duen borroka, eta zer esanik ez, azkenean, lehengo astean kanposantuan isuri zituen malkoak, bake malkoak. Erabat identifikatuta sentitzen naiz amona horrek bizitu izan duen guztiarekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

MEMORIA HISTORIKOA



Ana Mari Larrañaga, Izaskun Lazpiur eta Pili Bilbao lehengusuekin batera, joan zen ekainaren 17an Gernikan lurperatutako gudari gipuzkoarrei eginko omenaldian. Irudian, 82 izen agertzen diren bi plakatako batean.

Laurogei urtez ahaztuta egon diren gudariak

1936ko gerran zehar, Bizkaia oraindik Errepublikaren esku zegoen bitartean, EAJ alderdiak panteoia eta lur saila erosi zituen Gernikako Zallo hilerrian, bertan bere zenbait batailoiekin hildako gudariak ehorzteko asmotan. Era horretan, eta Legutio eta Areceseko borrokaldietan eta Bizkaiko mendietan hildako Itxarkundia, Loyola, Saseta eta Amayur batailoietako gudariak ehortzi zituzten bertan (Gipuzkoak gehienak); horiekin batera eraman zituzten ELA-STVren San Andres batailoiko beste gudari bat eta CNTko miliziano bat. 82 gorpu guztira. Gernika txiki-txiki eginda utzi eta bera militariki okupatu ostean, frankistek hilerriko Julian Lejarraga ehorzleari agindu zioten gudarien gorpuzkinak hobi komun batera bota zitzala. Baina berak agindua bete ordez leku ezkutu batean lurperatu zituen, haien identifikaziorako datuak gorde eta gero. Gernika-Lumoko erregistro zibiletik gudarien aztarnak kentzea lortu, lortu zuten, baina ez horrela ehorzlearen artxibotik.

Erkibe eta Gernikazarra elkarte memorialistek eginko ikerketa lanari esker, oraindik orain jakin da urtetan ezkutan egon den gudarien historia, eta horien nortasuna. Horrenbestez, 80 urtez hobi komun batean egon dira gudariak, haien familiak han zeudenik jakin gabe, eta jakina, inongo aitortzarik jaso gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain

gudariei merezi duten aitortza publikoa egitea, Mari-bel Vaquerok gidatzen duen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Horretarako, lehenbizi gudarien oinordekoak topatzeko ahaleginak egin ditu; azkenean 82 gudarien familien erdiekin jarri ahal izan dira harremanetan. Ezinbesteko pauso hori eginda, "Gipuzkoatik Gernikara" ekitaldia antolatu zuen ekainaren 17an, Gernikako hilerrian bertan.

Gudari guztien izena daramaten bi plaka jarri ziren ekitaldian zehar. Markel Olanok adierazi zuenez, ekitaldiak balio izan du zor historikoetako bat kitatzeko, eta, hutsean geratzeko gudarien oroimena ezabatzeko frankistek bere garaian egindako saiakera.

GUDARI ANDOAINDAR BAT GERNIKAN OMENDUTAKOEN ARTEAN

Jazinto Agote Santamaria andoaindar gaztea zen 82 gudari horietako bat. Jatorriz Bermeokoa zen, eta lan kontuagatik Andoainera heldu eta Bazkardo auzoan jarri zen bizitzen, Agiri-Alnaiz etxean. 18 urteko gaztea zen, ezkongabea. Agote Itxarkundia batailoi abertzaleko gudaria zen, eta Ola-etako frontean hil zen, 1937ko apirilaren 3an.

Bere garaian Andoaingo Oroitzuz elkarteak egin zituen saiakerak bere oinordekoren bat topatzeko, baina hutsean geratu zen ahalegina.



1937ko apirilean Bizkaiko frontean ateratako argazkian, Agote hil baino egun batzuk lehenago. Tartean dira hainbat andoaindar: Pedro Garmendia (1), Benantzio Amondarain (2), Sebastian Laka (3), Jazinto Agote (4), Inazio Arana (5), Anastasio Sarasketa (6), Angel Agirrezabal (7) eta Lorentxo Galartza (8).

Egape dantza taldeko kideak Katalunian izan dira

Vilafranca del Penedes herriko jaialdian



Vilafranca del Penedesera joandako dantzariak.

Egape dantza taldea Bartzelona probintziako Vilafranca del Penedesen izan da, bertako Falcons del Penedès taldeak gonbidatuta. Herriko plazan eskaini zuten emanaldia.

Urnietatik 25 dantzari joan ziren kataluniar lurretara, hamar gurasoz lagunduta. Esperientzia berria urnietarrentzat, Urnietan bertan urteurreneko ospakizuna egin eta egun gutxira.



Herriko plazan eskaini zuten saioetako bat.

Informazio eta Komunikazio Teknologia mailakoa

Ziurtagiri aurreratua



Presentacion de Maria ikastetxeak IKT heldutasun ziurtagiri aurreratua lortu du, Eusko Jaurlaritzak ematen duena. Ziurtagiri horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, metodolo-

gian, teknologian, material eta baliabide digitalen erabileran, administrazioan eta komunikazioan maila gorena duela adierazten du. Ikastetxe ordezkariek, nola ez, pozarren daude.

KALETXIKIKO JAIK

Herri bati dagokion egitaraua duen auzunea

Ezin kexa daitezke Kaletxikiko auzotarrak, jai batzordeak antolatu dituen ospakizunekin. Lau egunez hamaika hitzordu egin dituzte, eta auzotarrez gain andoaindar ugari hurbildu dituzte jaietara.

Lantalde dinamikoa da Kaletxikikoa, horixe da egitarau oparo hori egiteko sekretua. Askoren lan handiari esker, giro oneko eta parte hartze handiko jaiak izan dira aurtengoak.




Ezkonduen eta ezkongabeen arteko partidari bi taldeetako partaideek elkarrekin argazkia atera zuten. Elementu garrantzitsua falta da argazkian, sokatik lotuta batera eta bestera zebilen bigantxa.



Ezkonduek irabazi zuten partida. Erdian, zutik, Xanti Bakero Realeko jokalaria ohia eta eskulnetik lehena, zutik, Roberto Galarraga Euskaldunako eta Sanseko jokalaria ohia.



Dantzariak eta auzotar gazte eta helduek parte hartu zuten igande goizeko soka-dantzan.



Bigantxa, ponía,... Gorritiren eskutik arratsalde polita igarotzeko aukera izan zuten Kaletxikira hurbildutako dozenaka haurrek.

KALETXIKIKO JAIAK



Ainara Lasa, dotore-dotore jantzita, aurtengo Kandidaren paperean. Atzean ditu Txikitxoak.



Haur eta gazte koadrilla jaietako maindirea eskuetan daramatela.



Sagardo dastaketan Gaztañaga izan zen garailea. Joxe Angel Gaztañagak jaso zuen saria. Asteasuko Sarasola sagardotegia sailkatu zen bigarren, eta Astigarragako Irigoien hirugarren.



Jaiak auzotar askoren lan handiari esker antolatzen dira.



Ontza elkartetik abiatu zen danborrada.



Etxeberria zuzendaria eta Mujika danbor jotzailea.



Berrozpeko elizan saioa eskaintzen dute, urtero-urtero.



Gora Kaletxiki bandak Luxio Aranburu, Vicente Ibañez eta Gloritxu Igerategi omendu zituen. Olagain txistulari bandarekin batera, besteak beste, Andoaingo ereserkia eskaini zuten igande eguerdiko saioan.



HEZKUNTZA

Bullyingari aurre egiteko bideokliparen grabaketa

Ondarreta ikastetxeko ikasleek eskola jazarpenaren aurkako bideoklipa egin dute, El Langui rap kantariaren “se buscan valientes” abestia erabiliz. Susana Alvarez eta Irati Madariaga gurasoek kore-

ografia prestatu dute, eta aldi berean, Maitane Balerdi eta Gema Arratibel irakasleek berdintasunaren aldeko baloreak landu dituzte abestiaren letraz baliatuz.

El Langui (Juan Manuel Montilla) rap kantari ezagunak ikastetxeetan bullyingaren gaia jorrazteko asmoz “Se buscan valientes” abestia kaleratu zuen 2017ko urtarrilean, eta handik gutxira, Susana Alvarez eta Irati Madariaga Ondarretako ikastetxeko gurasoek otu zitzaizkien bideoklipa egin zitekeela ikasleekin, abestia erabiliz. Ikastetxeko zuzendaritzaren oniritzia jaso, eta lanean jarri ziren. Eskolaz kanpoko ekintza den Zumbako monitore gida aritu dira ikasturte osoan ikastetxean 30 ikasleekin, eta horiekin ekin zioten koreografiari. Gurasoa ere baden Aitor Iturraldearen laguntza izan zuten, grabazio eta montaje lanetarako. Pozik daude hasieratik jaso zuten erantzunarekin eta baita azken emaitzarekin ere. “Bideoklipa gure 30 umeekin egitea pentsatua geneukan hasieran, baina azkenean ikastetxeko lau ikasturteetako ehun bat animatu ziren. 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasle guzti-guztiekin parte hartu nahi izan zuten. Grabaketa ikastetxeko patioan bertan egin zen, eta horren ostean, Aitor Iturralde montaje polita egin zigun. Bere facebook-eko kontura igo zuenetik ia sei mila bisita edukitzerara iritsi da”.

AUSARTAK BEHAR DITUGU

Abestiarekin bideoklipa grabatu den denbora berean, eskola jazarpenaren eta berarekin lotutako beste zenbait gai jorratu dituzte ikastetxe barruan, 3. eta 4. mailako ikasgeletan. Maitane Balerdi eta Gema Arratibel irakasleek abestiaren letra euskaratzeaz gain, berdintasunaren aldeko baloreak landu dituzte; ezberdintasuna aberastasun gisa hartzearen aldeko ideia zabaldu nahi izan dute horrela. “Eskolan, eguneroko elkarbizitzan liskarrak sortzen direnean, berehala konpontzen saiatzen gara, eta bestalde, astean zehar tutoritza orduak edukitzen ditugu egoera horiek nola bideratu ikasteko. Ordu horiek abestiaren letrarekin lan egitera bideratu ditugu, azken batean”.

Ahulena iraintzen duenari aurre egingo dioten ausartak nahi direla. Mezu horixe zabaldu nahi izan dute ikasleen artean. “Jokabideetan izan daitezela aktiboak, injustiziaren aurrean ez dezaten ez ikusiarena egin. Irain edo jazarpen motaren bat sufrizten ari den ikasle horiekin enpatiza dezatela, eta bere aldeko jarrera aktiboa har dezatela.



Bideoklipetan parte hartu zuten ikasleak dantzan.



Ogibidez kamera lanetan dabilen Aitor Iturralde gurasoa izan da bideoaren egileetako bat, Maitane Balerdi eta Gema Arratibel irakasleekin batera. Behean, Susana Alvarez eta Irati Madariaga guraso eta Zumbako irakasleak.

“Beltz zikina!”, “moro zikina!” “lesbiana zikina!” edo antzeko irainak entzutean, denak senti gaitetzen irainduak, denak senti gaitetzen beltz, magrebiar edo lesbiana”.

Bi irakasle oso gustura geratu dira abestia landuz ikasleengandik lortu duten erantzunagatik. Izan ere, zenbaitean, balore baikorrak transmititzeko, ez dago gazteek eurek kontsumitzen dituzten kultur adierazpenetara jotzea bezalakorik.



“BIHOZTUNAK BEHAR DITUGU” KANTUAREN HITZAK

Bihoztunak behar dizkiagu/dizkina(g)u,
//senti de(g)una esateko
Ausartak, ahulena babestu, // eta defendatzeko
Premiazkoa haiz,
// ba(da)kin / ba(da)kik zer gertatzen den,
Ez bestalde(r)a be(g)iratu,
// gaiztoari beldurrik ez.
Ausartak behar dizkiagu/dizkina(g)u
laguntzeko,
Darth Vaderri aurre (eg)iteko
(e)ta ganberro batzuei,
// abusuak gelditzeko
Alde harropuz, eta entzun,
// ondo eta tentuz.
Jarrai (e)zak/(e)zan aurrera,
// ez geratu atzean
Errespetua eskatu,
(e)ta azpimarratu (d)jat/(d)inat.
Motxila liburu gabe,
arinago zian/ziak.
Izan ausart, (e)ta ez onartu atzo ikusia.
Bakarturik norbait bazagon/bazagok,
Bazterturik norbait bazagon/bazagok,
jarri haren tokian,
// ni, bere-ondoan nagon/nagok!!
jarri haren tokian,
(e)ta harropuzta atzera.
Hi, lagun!!
ausartaren indarra bihotzean dun/duk.
Ausartak behar dizkiagu/dizkinagu,
Ausartak behar dizkiagu/dizkinagu.



KIROL ALBISTEAK

Kaletxikin hasi eta buka, Leitzaranean ibili eta gero

Miguel Mari Pagolaren omenezko mendi martxa eta krosak berrikuntza nabarmena izan zuen aurtengo edizioan. Lasterketaren antolakunta Sport Madness

enpresaren esku joan zen, zeinean Aratz Irigaray andoaindarra kideetakoa den. Helmugan Martinez urnietarra eta Colomo zizurkildarra izan ziren garaile.

SAILKAPENA. 170702:

- | | |
|-----------------------|-------|
| 1. Asier Martinez | 40:47 |
| 2. Javi Perez | 42:01 |
| 3. Jon Iturralde | 42:11 |
| 1. Lourdes Colomo | 51:41 |
| 2. Maialen Gurrutxaga | 54:48 |
| 3. Josune Etxezarreta | 57:44 |

Etxeberrietako lasterketaren berezitasuna oinezkoen marxa ere badela. Partaideek horrela modu batera ala bestera parte har dezakete auzunetik hasi eta Leitzaranean aldera murgiltzen den ibilbidean. Kirola egiteko eguraldia primerakoa izan zen.



Jon Ander Telletxea, Jon Iraola, Javi Ruiz, Jaime Real eta Javi Perez irteeran.




Asier Martinez, garailea.




Javi Perez, Asier Martinez eta Jon Iturralde gizezkoen podiuma.



Jon Lanz aurrealdean ibili zen.



Lourdes Colomo, garailea.



Unai Lizeaga urnietarra.



Diego Barrasa andoaindarra.



Podiumeko bi hirukoteak Sport Madness enpresako Lopetegi eta Irigarayekin batera.

Mendi lasterkariak Goierrira begira



Jon Iraola andoaindarra.

Asteburu honetan mendiz mendi korrika dabiltzan kirolarientzat hitzordu nagusia Goierrin dago. **Ehunmilak** eta **G2Haundiak** iraupen luzeko bi lasterketetan, hain zuzen. Eskualdeko partaidetza izango da bi lasterketetan.

EHUNMILAK

Jon Iraola andoaindarrak 168 kilometroko mendi lasterketan parte hartuko du, asteburu honetan. Joan zen igandean Kaletxikiko mendi lasterketan parte hartu eta gero, honako mezua idatzi zuen sare sozialetan: "Azken entrenamendua -lo gutxi egin da eta gosalduta gabe- aste eder baten aurretik... Ehunmilak zuen bila noa!".

G2HAUNDIAK

88 kilometroko lasterketan eskualdeko partaidetza zabalagoa izango da. **Urtzi Fernandez**, **Iker Beloki** eta **Alberto Barro** andoaindarrak irteeran izango dira, eta baita **Tomax Pellejero** urnietarra ere.



Tomax Pellejero urnietarra.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buztina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

Uztailaren 7a

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragari:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragari kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

UZTAILAREN 7IK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Jaiak

Andoain

Karrika auzunean jaiak uztailaren 14tik 16ra.

■ **Uztailak 14, ostirala:**

19:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa.

19:15 Zumalokura saioa Susana eta Iratiren eskutik.

20:30 Sardin jatea.

22:30 Rock kontzertua: Pangea, Kanean.

02:00 DJ Tristan.

■ **Uztailak 15, larunbata:**

10:00 Futbol txapelketa. Gehienezko adina 14 urte.

12:00 Puzgarriak eta apar festa.

12:30 Sagardo dastaketa.

16:00 Mus txapelketa, bikoteka. 20 euro.

16:00 Puzgarriak eta apar festa.

20:00 Danborrada afaria karrika elkartearen.

23:30 DJ Tristan. Ondoren, pepino lehiaketa.

■ **Uztailak 16, igandea:**

11:00 Auzoko hildakoen aldeko meza, Sorabillan.

12:00 Toka txapelketa.

12:00 Marrazki lehiaketa. Sariak adinaren arabera banatuko dira. Marrazkietako bat 2018ko jaiak iragaritzeko baliagarri izango da.

12:30 Patata tortilla lehiaketa. Jai batzordearen esku: patatak, arraultzak eta tipula.

12:30 Paella lehiaketa.

Jai batzordearen esku: arroza, tipula, piperra eta oilaskoa. Paella handi bat ere egingo da, errazio bakoitza 1,5 eurotan salduko dena.

18:30 Play back saioa.

19:30 Jumping eta Zumba.

20:30 DJ Tristan.

23:00 Jaiaren amaierako azken traka.

Parte hartzea

Urnietan

■ Kiroldegi berriaren egitasmoari ekarpenak egiteko epea ixtear dago. Tokia: Bertan. Azken eguna: Uztailak 7.

Lehiaketa

Urnietan

■ 2017ko Sanmielak iragaritzeko kartel lehiaketa. DIN A3 tamainan egin behar da. Oinarriak: Urnietan.eus. Sari bakarra: 450 euro. Epea: Uztailak 7.

Farmaziak

Andoain

■ **Diaz Fernandez:** Nagusia, 19. Gaez: Etxebeste (Hernani). Uztailak 8-9.

Urnietan

■ **Urrutia Martin** (Hernani): Etxeberri auzoa, 1. Florida. Gaez: Etxebeste (Hernani). Uztailak 8-9.

Odol-emaileak

Urnietan

■ Anbulatorio zaharrean. 18:30-20:30. Uztailak 11, asteartea. Abuztuak 8, asteartea.

Ikastaroak

Andoain

■ **Txertatu merkatuan** ikastaroa: Prestakuntza margoketa industrial, bizikleta konponketa eta abar. 18-22 urte arteko langabe-tuentzat. Info: 943 30 42 21.

■ **Ostalaritza** eta merkataritza-rako oinarriko euskara ikastaroa. Info: 943 300 831.

Izen-ematea: Ataria. 09:00-11:00. Doan. Uztailak 10-21.

Zinema

Andoain

■ Udan zinema kalean, Gazte Lokalaren eskutik.

Uztailak 7, ostirala: "Ice Age, el gran cataclismo". 22:00 Goikoplaza.

Uztailak 13, osteguna: "Zipi eta Zape eta kapitainaren irla" filma, euskaraz. 22:00 Zumea plaza.

Uztailak 20, osteguna: "El corredor del laberinto". 22:00 Etxeberrieta plaza.

Sariketa

Andoain

■ **Rikardo Arregi Kazetaritza Saria**, sari banaketa ekitaldia. 12:00. Bastero. Uztailak 8, larunbata.

Ordutegia

Andoain

■ **Andoingo Udala**, udako ordutegia: Asteazken zehar: 08:00-14:00. Irailaren 29ra arte.

■ **Allurralde kiroldegia** eta igerilekuaren udako ordutegia: Asteazken zehar: 07:00-21:00. Larunbata: 09:00-20:00. Arrate pilotalekua: Asteazken zehar: 16:00-21:00.

■ **Liburutegia**, udako ordutegia: Uztailaren 28ra arte: Astl: 10:00-13:00 16:00-20:00.

Astr-ostir: 10:00-14:00. Abuztuako ordutegia: Astr-ostir: 10:00-14:00. Fonoteka-bideoteka itxita (Eskakerak liburutegian).

Urnietan

■ **Kz Gunea:** 16:00-20:00. Uztailaren zehar.
■ **Bake epaitegia:** Ordutegia: 09:00-14:00. Asteartea, osteguna. Errekalde kalea, 1.
■ **Liburuak igerilekuan:** Haur eta helduentzat liburuak eskura, uda osoan. Igerilekuaren ordutegian.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Añer Rojo Arregi 8 urte beteko ditu uztailaren 11n. Etxeko-enartetik zorionak eta muxu handi bat!

ANDOAIN

ZORIONAK



Bizi-bizi eta azkar batean iritsi zen gugana, duela urtebete. Muxu handia Ur! Xune, amatxo, aitaxo eta etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Nere 2 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Izozki mordoa jango dugu! Muxuak etxeko-en partez.

ANDOAIN



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekarian: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus Whatsapp: 619 163 537

Oporrak bakean, harrera ekitaldia Andoainen

Andoingo Udalak, urtero bezala, Saharatik hona udal igarotzera etortzen diren haurrei harrera egiten die.

Ekitaldia datorren uztailaren 10ean izango da udal-etxeko pleno aretoan, eguerdiko 12:00etan hasita.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, larunbat honetan

Larunbat honetan, uztailak 8, aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren irabazleak aditzera emango dituzte Basteron, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Sari-tuen izenen eta lanen berri ekitaldian bertan emango duten arren, Udalak dagoe-neken aurreratu du, sariez gain bi "Aipamen berezi" egingo dituztela. Batetik, Eguna euskaraz egindako lehen egunkariari eta, bestetik, Noticias taldeko Ortazar gehigarriari.

Eguna da euskaraz egindako lehen egunkaria. 1937ko urtarrilaren 1ean kaleratu zuten, Bilbon. Garai hartako jazaraldi faxistaren eraginez, ibilaldi laburra izan zuen, sei hilabete eskasekoa, eta 139 zenbaki besterik ez zituen argitaratu. Udalaren oharraren arabera, "Euskal kazetaritzaren joan-etorrian mugari garrantzitsua eta goraiatzekoa da Eguna, eta horregatik, aurtun 80 urte bete direnez sortu eta kalean iraun zuela, Aipamen berezia egitea erabaki da. Bizkai-ko Foru Liburutegia da Euskal Herriaren gure egunetara iritsi den Egunaren bilduma oso eta ezagun bakarra gorde duena, aurrea ezinbes-



tez "ezkutuan" eta gero jendaurrean".

Ortzadar asteroko gehigarria Deiak 1997an sortu zuen, Noticias taldea kalertzen ari da gaur egun astero: "Erdal hedabide batean leku propioa, txikia bada ere, lortu izana aintzat hartu nahi izan du epaimahaiak haren 20. urtebetetzean".

SARIAK

XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren hiru sari emateko aukera du epaimahaiak: "Kazetari berria" saria 27 urtez azpikoentzat, "Epamahiaren sari berezia" eta sari nagusia den "Rikardo Arregi Kazetaritza Saria". Sari nagusiaren irabazleak 9.000 euro garbi eta "kazetari berria" atalekoak 3.000 euro garbi jasoko dituzte, Xabier Laka eskultoreak egindako eskultura banarekin batera.